

AURKEZPENA

Une honetan, emakume eta gizonezkoen arteko egoera gizarte-bizitzako hainbat alderditan desberdina dela esaten badugu, ez dugu ezer berririk esaten. Datuek ere argi eta garbi adierazten dutena berresteaz gain, Lan Harremanak aldizkariak ale honetan ekarpen umila egin nahi du egoera horri aurre egingo dioten mekanismoak bilatu eta aztertzeo prozesuan.

Ale honi hasiera emanaz, Mertxe Larrañagaren artikulua dugu. Bertan Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonezkoen artean dauden lan-ezberdintasunei buruzko datuak aztertzen dira eta Europako egoeraren testuinguruan kokatzen dira. Ondoren, Teresa Pérez del Ríoren ekarpenak jasotzen dira; honek mainstreaming eta ekintza positiboaren kontzeptuak hartzen ditu Erkidegoak berdintasunaren inguruan duen politikaren ardatz nagusi gisa. Santiago Lesmesek, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren euskal legea oinarri hartuta, ekintza positiboaren legezko aukerak eta mugak aztertzen ditu. Bestalde, Sabin del Badok eta Lander Etxebarriak egindako artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzura dauden langileei dagokienez aipatu legeak ematen dituen aukeretan zentratzen da. Jose Luis Retolazak eta Maite Ruizek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ekonomia solidarioko enpresetan berdintasun-tresnak aplikatzearen esperientzia aurkezten dute.

Aldizkariaren ale honetan, Lan Harremanetarako Unibertsitate Eskolak berdintasun-planari jarraiki 2005eko maiatzaren 20an antolatu zuen «Enprestatoko giza baliabideak genero-zantzurik gabe kudeatzea» mintegian parte hartu zutenek esandakoa biltzen da. Horren ildotik datozkigu Marcial Romero, Luis Aramburu Marisa Méndez-Vigoren artikulua. Lehenengoan, emakumeek eta gizonezkoek soldataren truke lanean hastea nola bizi duten aztertzen da; bigarrenean, genero-diskriminaziorik egiten ez duen langileak hautatzeko prozesuak oinarritzat hartu beharko litzukeen irizpideei eta tresnei buruz hitz egiten da; eta hirugarrenean, enpresetan ezartzen diren aukera-berdintasunerako politikek kalitatearen kudeaketarekin duten erlazioa azaltzen da.

Azkenik, alearen amaieran, beste bi artikulua ditugu, geografiaren aldetik elkarrengandik oso urrun dauden emakumeen errealitateei buruzkoak. Batetik, Santurtziko sardina-saltzaileak ditugu eta, bestetik, Ertamerikan eta Dominikar

Errepublikan lakari-erdiarekin lan egiten duten emakumeak ditugu. Juan A. Rubio-Ardanazen lanak sardina-saltzailearen lanbide tradizionala desagertzea eragin duten arrazoi sozioekonomikoak aztertzen ditu; bestalde, Elena Martínezek eta Patxi Zabalok, nazioarteko lehiakortasun-esparru berriak agertu izanaren ondorioz, lakari-erdiarekin lan egiten duten emakumeen egungo egoera eta zalantzazko etorkizuna deskribatzen dituzte.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN
Lan-Harremanak U.E.ren Zuzendaria
UPV/EHU